

1902

**Euskal-itz jostaldien batzarrea**

(Euskal-festen XXI garren urtea)

**¡ZER ONRA DAN GIPUZKOATARRA IZATEA!****Aipamen onragarriya Oñati-n irabazitako moldaera**

Beste Probinzi euskerazkuak  
 Ziñez errespetaturik,  
 Bañan euskalen etsai guziyai  
 Galdetzen diyetalarik:  
 ¿Alda eguzkiaren azpiyan  
 Gu beziñ onra zalerik,  
 Gu beziñ ausarditsurik,  
 Gu beziñ bulardetsurik eta  
 Gu beziñ umant aundirik,  
 Gure moduan munduko jaunen  
 Menpean egon ez danik?  
 Ezetz esango nuke nik.

Naiz Fenizio, naiz Kartagoak,  
 Godo eta Arabeak,  
 Iñoz etziran bada izandu  
 Gipuzkoaren jabeak  
 Zituztelarik ekarri beti  
 Izugarrizko taldeak:

Bada asaba gureak  
 Ziran gudari trebeak;  
 Naiz ill, naiz bizi ziradelako  
 Guzizko bildurgabeak  
 Salbatu izan zituzten zintzo  
 Probinziaren onreak.

Gipuzkoatarrak jatorritikan  
 Santubak ez galararik,  
 (Besteak ere Jaungoikoaren  
 Semeak diradelarik)  
 ¿Zer esan nai du ez bada iñun  
 Gu beziñ jende bikañik,  
 Gu beziñ odol garbirik,  
 Gu geran beziñ osorik,  
 Naiz ichasoan, naiz legorrean,  
 Gu beziñ umantakorrik,  
 Eta kondairaz? alda munduan  
 Gurea beziñ ederrrik?

¿Bai alda gure euskera beziñ  
Izkuntza onragarririk?  
¿Bai alda gure Loge Santubak  
Diran beziñ ongarririk?  
Zerutikako bi izar oyek  
Badaude chit tristeturik,  
Samintasunez beterik,  
Oñazez erdibiturik,  
Daudelarikan ertsiturikan  
Erdaldun katez loturik  
¡Bañan ez dute alaz guziyaz  
Saldu nai beren onrarik!

¿Nola guk saldu ezerengatik  
Gipuzkoaren onreak  
Gure Aitonak ain chukunkiro  
Beti ta beti gordeak?  
Zenbait euskaldun gaudelari-  
Erdaldun gaitzez erreak [kan  
Oraindik gera nobleak  
Arrotzak baño obeak.  
¿Nork esango du ez ditut maite  
Gipuzkoaren Legeak  
Baldin bagera jatorritikan  
Onraz parerik gabeak?

Goyenekoak gerala onraz  
¿Aldet esan geyegirik  
Baldin *Cervantes* argidotarrak  
Neri erakutsi badit?  
Guregatikan onek esana  
Bein bat nik irakurririk,  
Jarri nintzan arriturik  
¿Osotoro miresturik!  
Eta Gillermo Humboldtkeoa  
Atzeritarra zalarik,  
Astarloaren adiskideak  
Ere erakutsitzen dit,

Ara zer diyen Cervantes eta  
Humboldt euskera zaleak:  
Lenbizikoak digu deitutzen  
«Onragarrizko loreak,  
Erregearen goarpelari  
Izan giñezken jendeak,  
Geranak irakurleak  
Eta izkribatzalleak».  
Bigarrengoak diyo onela:  
«Dirade euskal libreak  
Chit antziñako Ibero zarren  
Odol garbiko semeak».

¿Zerbaitengatik dute kontatzen  
Gure kondaira garbiak  
Gerala Tubal ezkeroztandik  
Izan bentzutezgarriak!  
Emen kontura etorri gaiten  
Zer diran Ibar-mendiyak,  
Aldiran onragarriak,  
Etsayen garailariak.  
Gañerakoan esan dezala  
Egia... gaztelaniyak,  
Zeñek biraldu zituben andik  
Moro talderi aundiyak.

¡Bai! ¡bai! Moroak ziran garaitu  
Euskal-errien gantikan  
Kobadongatik Granadaraño  
Guk ziñez lagundurikan.  
Zazpi gizaldi luze ayetan  
Fedea goyendurikan,  
Aizkenez Alanbratikan  
Itzuli biraldurikan  
Euskal-mutillak ziran etorri  
Osoro koroiturikan,  
*Opas* ta beste salkindariyen  
Lan denak desegiñikan.

¿Nun dirade, nun, Okendo eta  
 Churruka bezelakoak  
 Bi fedetsuen gisa munduba  
 Onraz apaindutakoak?  
 ¿Zeñek egin gaur egin zubena  
 Elkano ausarditsubak,  
 Elkano bulardetsubak,  
 Ontzi gidari altsuak?  
 Egin zutena Urdaneta ta  
 Legazpi birtuosuak  
 Bakar-bakarrik dute egiten  
 Euskal kristau chit-osuak.

Galdetu onra maite altzuten  
 Andia eta Lezori,  
 Urbietari. Bidazabali,  
 Ta beste milla zalduni.  
 Galde nai bada Orreaga ta  
 Beotibar zelayari;  
 Galdetu San Marziali  
 Eta Belate gañari.  
 ¡Galde! bai ¡galde! Gipuzkoaren  
 Eskut-arma ederrari  
 Ikusitzeko Gipuzkoatarrak  
 Zenbat nai diyen onrari.

Galdetu Aita Lurramendikin  
 Mendiburu ta Errori  
 Onrarenegatik zenbat on egin  
 Zien zaldun erriari:  
 Galde Aizkibel, Lardizabal ta  
 Iñigo Iztuetari;  
 Galdetu Manterolari,  
 Bilinch, Iparragirreri;  
 Galde Garibay, Zaldibia ta  
 Isasti, Gorosabeli;  
 Galdetu onra maite altzuben  
 Nikolas Soraluzeri.

Zerubarentzat ere izandu  
 Ditugu onra mordoak  
 Aitzgorri eta Ernio baño  
 Askozaz aundiyagoak.  
 Done Iñigo ta done Martin  
 Gurutze zale beroak  
 Bi Santu umuntagoak  
 ¿Alditu eman munduak?  
 Aita Erkizia, Aita Lizardi,  
 Dirala done sendoak  
 Daude esanaz biak sufritu  
 Zituzten martiriyoak.

Kristobal Kolon illezkorrakin  
 Juan ziran Gipuzkoatarrak  
 Etziralako ichasorako  
 Errenak eta elbarrak.  
 Lepanton ere gure asabak  
 Etziran izan baldarrak  
 (Ta guchiago zabarrak)  
 Baizik gudari azkarrak.  
 Ondo ikusi ziran Flandesen  
 Gipuzkoatarren indarrak,  
 Nun nai bezela giñalako gu  
 Gudalariyen izarrak.

Jarri ziyonak Probinzi oni  
 Izentzat *Egiputzuba*  
 Nai eta nai ez jaun arrek zeu-  
 Zeruban begiratuba. [kan  
 Beintzat zekiyen erri au dala  
 Jainkoak bedinkatuba,  
 Jainkoak izarratuba,  
 Jainkoak doatsutuba:  
 Eta nola dan Tubal ezkeru  
 Onraen gorde lekuba  
 Esan dezagun lotsatu gabe  
 ¡Au da munduko zeruba!

¿Nolatan ez da bada izango  
Mundu ontako zeruba

Birtute guzi guzietara

Badago ornenatuba?

Uzta-illaren ogei ta batak

Daukalarik goibelduba

Eta guztiz turmoituba,  
Ekaitzez inguratuba:

Bañan zerutik zalako jechi

Erri eder au mundura

Mundu ontako zerutik juango

Da zuzen zuzen zerura.

RAMOS AZKARATE-KOAK.

1902

## Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXI-garren urtea)

# ARANZAZUKO AMA BIRJIÑARI



Aipamen onragarriya Oñati-n irabazitako moldaera

*Bizi bedi fedia.*

Aranzazuko Ama  
Maria Birjiña,  
zeruko aingerucho  
danen erregiña,  
Zu goitutzen egingo  
det nik alegiña,  
naiz ez izan Zuretzat  
nere luma diña.

Zori oneko Ama  
Birjiña laztana  
zeruko lorateyan  
zera ederrena,  
izar dizdizariya  
argiz argiyena,  
mancharikan gabia  
garbiz garbiyena.

Zure izenarekin  
danak dira umiltzen  
aingeruak begira  
ez dira aspertzen,  
Zure edertasunak  
ditu arritutzen  
ala beti aidira  
gloriya kantatzen.

Gau illunian izar  
eder bat bezela  
gure naigabietan  
izarra Zu zera,  
atsegiña bigaltzen  
dezu biyotzera,  
¡o! Birjiña chit santa  
¿Zu gabe zer gera?